

Prentsa oharra

Jarduera komertzialak alokairu eran jarraituko du

EROSKI-K DONOSTIAN DUEN SUPERMERKATU BATEN HIGIEZINA EROSI DU SILICIUS SOCIMIK

- EROSKI supermerkatu propio berrien irekierari heldu dio berriro ere urte honetan, geroago bere jarduera alokairu erregimenean garatzeko; hala, bere eraldaketa planean inbertitzen jarraituko du
- SILICIUS SOCIMIK beste hazkuntza fase bat hasi du, eta iragarri duenez, 300 milioi euro ingururen aktiboak erdietsi arterainoko inbertsioak egingo ditu

Donostia, 2017ko abenduaren 13a.- [EROSKI](#)k eta SILICIUS SOCIMIK —zeina MAZABIk kudeatzen duen— higiezin baten salerosketa sinatu dute; Donostian dago, Arroka plazako bigarrenean, eta EROSKI City izeneko supermerkatu bat du bertan kooperatibak; haren jarduerak bere egunerokoan jarraituko du, alokairu eran.

"Operazio honekin, EROSKI berriz hasi da denda propioak irekitzen, eta, ondoren, alokaitu eran jarri du bere jarduera komertziala. Hala, aurrera segitzen du bere eraldaketa planean", azaldu du EROSKIren Higiezinen eta Zerbitzuen Garapenerako zuzendariak, Javier Españak. Supermerkatu hau maiatzean irekitzeaz batera, EROSKI berriz hasi zen denda propioak irekitzeko inbertsioetan. Aurreko urteetan, berriz, sare komertziala birmoldatzen eta frankiziak irekitzen aritu da.

Ia 2.000 metro koadroko saltokia da, Donostiako San Bartolome Muinoko garapen urbanistiko berrian dagoena, eraikin baten beheko solairuan. Inguru hau indartzeko, ekimen urbanistiko ugari daude pentsatuak: 13.000 metro koadrotik gorako espazio libreak, lorategiak eta plazak, ekipamendu komunitarioak eta tertziarioak, oinezkoen mugikortasuna errazteko igogailuak eta eskailera mekanikoak eta, bide lotuneak ez ezik, baita garajeak eta 534 etxe ere.

Aktiboaren tipologia dela, kokapena dela eta maizterraren soslaia dela, lokal hau kalitatezko produktu bat da, eta ezin hobe ezkontzen da SILICIUSen inbertsioen politikarekin: kalitatezko higiezinak, errenta egonkorak sortzen dituztenak, eta errentari sendoa, horko akzioak hartzen dituztenei urteko kupo bat eskaintzeko.

Honela esan du SILICIUSeko zuzendari nagusiak, Juan Diaz Bustamantek: *"Aktibo honek erakusten du zein den gure zorrarako aktibo egokia; izan ere, gure printzipioak zuzen asko betetzen ditu; hots, inbertsio kontserbatzaileen alde egitea epe luzeko alokairuen bidez, dibertsifikazioa, eta aktiboen likidotasuna jabeei urteko kupoa ordaintzeko".*

Socimia hazkuntza fasean dago, eta horren harira etorri da operazio hau. Haren asmoa da era honetako higiezinetan inbertitzea, datozen hilabeteetan 300 milioi euroren aktiboak erdietsi arte. Gaur egun, SILICIUSEk 120 milioi euro balio duten

aktiboak ditu, eta urteko errenta sei milioi eurotakoa da gutxi gorabehera. 2017ko urte honetan, 2.000 milioi euroren inbertsio aukerak aztertu ditu konpainiak, eta oso zorrotza da bere inbertsio politikan.

Siliciusi buruz

SOCIMI bat da Silicius, Mazabik kudeatua, zeina espezializatua baitago inbertsiogileei luzera begirako errentak eta urteko kupo bat ematen dizkieten aktiboetan. Inbertsio politika ondo markatu bat darama Siliciusek, eta honako printzipio hauek betetzen ditu: luzera begirako inbertsio kontserbatzaileak, aktiboen likidotasuna, urteko kupoaren ordainketa eta zorpetze txikia (%30 LTV).

Gaur egun 120 milioi euro inguruko higiezin zorroa du, eta haren asmoa da balio hori bikoiztea (hori baita Socimia likidotzat hartzeko ezinbesteko zenbatekoa), burtsara atera aurretik, 2018ko uda aurretxoan. Inbertsioarekin urteko kupo baten ordainketa eta kotizazio bidezko likidazioa bilatzen duten Family Office eta Inbertsore Instituzionalak dira bere inbertsiogile "target"-ak. Espainiako higiezinen merkatuan eskarmentu handia duten partnerrek eta kudeatzaileek zuzentzen dute.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziatzko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.784 saltokiko sare komertziala du. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 32.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkidetik gora.

Urte honetan, EROSKIk hiru supermerkatu propio ireki ditu, eta denda propioak irekitzeko ziklo berria abiatu du. Datozen urteetan, penintsularen iparraldean eta ekialdean irekiko ditu denda propio gehiago, hasi Galiziatik eta Kataluniara eta Balear Uharteetara; izan ere, EROSKIk ospe ona du kontsumitzaileen artean eskualde horietan, eta merkatu kuotaren %18 inguru ordezkutzen du. Aldi berean, denda frankiziatuen irekiera programa indartsu bat bultzatzen dihardu EROSKIk.

<p>EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prensa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642</p>	<p>SILICIUS Siliciuseko Komunikazio arduraduna Esther Armendia Tel: 699 21 21 52 earmendia@recomunica.com</p>
---	--